

✓ EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

Euskara Euskal Herriko hizkuntza kontsideratzen dugu eta gure ondare kulturalik garrantzitsuena. Txingudi Ikastolak konpromizu sendoa hartu du euskara eta euskaraz irakasteko, bere garapena indartzeko eta bere erabileraren normalkuntza bultzatzeko. Konpromizu hori honetan gauzatzen da:

- Ikasbide gaurkotuenetan euskara irakastea eta erabiltzeko ohitura garatzea.
- Ikastolako harremanak, maila guztietan, euskaraz izatea.
- Ikastolaz kanpoko bizitzan euskararen erabileraren normalkuntzaren aldeko jarrera aktiboa eta jarduerak sustatzea.

Txingudi Ikastolako ikasleek Euskal Herriko kultura landu eta bereganatu behar dute herria errespetatzeko, maitatzeko eta garatzeko, eta beste kulturak ulertzera eta errespetatzera iristeko. Horregatik, honako helburuak atzeman nahi genituzke:

- Euskal Herriko kultur ondarea ezagutzea.
- Geografiazko, gizarte-ekonomiazko eta kulturazko inguruan errotzea.
- Euskal Herriko kide gisa, kultur nortasuna mamitzea.